



EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2016ko abenduaren 16koa, 2016-2017 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2016ko maiatzaren 10eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituena.

Agindu horren 30.artikuluaren arabera, laguntza berriak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatuko da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2016-2017 ikasturterako.

Kontratu horiek 12 hilabetetarako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, arloak eta lehentasuna zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 29. artikuluko 4. atalak zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko abenduaren 16a.



ADOLFO MORAIS EZQUERRO

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea